

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0427

GAIA: Hitzarmena Elikagai bankua 2025

ESPEDIENTEA: 2025GDIR0005

INTERESDUNA: GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA (IFK: G20605242)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan gehienez 250,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAren alde, Eskoriatzan premia egoeran daudenei janaria emateko, Caritas elkartearen bidez egingo da janari banaketa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Gizarte zerbitzuetako teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAren (IFK: G20605242) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAri gehienez 250,00 €-ko dirulaguntza ematea 2025ean. Eskoriatzan premia egoeran daudenei janaria emateko, Caritas elkartearen bidez egingo da janari banaketa.

HIRUGARRENA.- Diru ordainketa seigarren klausulan azaltzen diren agiriak agertu ondoren egingo da.

Aurreko urtea bukatuari dagokion sarrera-gastuari kopuruaren zenbatekoa ordainduko dio udalak

GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUAri.

LAUGARRENA.- 250€-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuaren partidari egozte.

ALKATEA